

Kutxabankek gehiengo sindikalarekin hirugarren Hitzarmen Kolektiboa sinatu du

- **Martxoan aurreakordioa lortu ostean, behin-betiko idatzia adostu dute Erakundeak eta negoziazio-mahaiak**
- **Hirugarren Hitzarmenak epe luzerako iraunkortasuna ematen dio Erakundearen egitasmoari**

Bilbon, 2021eko maiatzaren 31n. Kutxabankek **hirugarren Hitzarmen Kolektiboa** sinatu du goizean, joan den martxoan Erakundeak eta negoziazio-mahaiak ordezkatzan duen langileen % 59k behin-betiko idatziaren aurreko akordioa adostu ondoren. Hitzarmen Kolektibo berriak **sei urteko iraupena** izango du, 2019tik 2024ra.

Hitzarmen berriak **gizarte ikuspegiko hobekuntzak** ezartzen ditu, batik bat **bizitza profesionala eta familia bateragarri** egiteko, gai honetan **Bankuak duen konpromisoaren** haritik. Hain zuzen ere, kontziliazio-beharretarako gaiei erantzun ahal izateko urteroko orduen kopurua handitu da, amatasuna eta aitatasuna hartzeko baldintzak eta ordutegi murrizketak malgutu dira, bai eta kontziliaziorako ordaindu gabeko baimenak ere.

Gainera, testuinguru zailean, **kostuei eusteko** politika mantentzeko baliabideak ematen ditu, soldaten bilakaera datozen urteetarako KPIren jokabideari lotuta, antzinasuna automatikoki sortzeko zenbait mekanismo aldatzearekin batera.

Gai berrien artean, akordioak Erakundeko **telelana** arautzen du, etxetik lan egiten duten beharginei alorreko hitzarmenak ematen dizkien konpentsazioak hobetzen ditu, gutxienez jardunaldiaren % 30ekin eta % 80ko gehiengoarekin, egun batean presentziazko lana bermatuta. Postu zehatz batzuetarako erabateko telelana ezartzeko egoerak ere aurreikusi ditu.

Idatzi berriak **sustapen-profesionala** aztertuko duen **batzordea** sortzea adostu du, bai eta **kontratazio-beharrak** aztertuko dituen enplegu-batzordearen sorrera ere, besteak beste.

Martxoko aurreakordioan zehaztu zenez, **merkatuaren egoera zailari egokitzeko beharrezko baldintzak** betetzen ditu, eta egungo testuinguru zailean **egonkortasuna eta sendotasuna** eskaintzen ditu.

Egonkortasunaren eta bertako talentuaren aldeko apustua

Epe luzerako iraunkortasuna ematen dio Hitzarmenak Kutxabanken egitasmoari, eta alorrak bizi dituen eraldaketa teknologikoari eta espezializazio eskakizunei erantzuteko, **inguruko profil profesional onenak bateratzeko helburuari** eusten dio Kutxabankek. Horretarako, abian dauka talentu komertzialean eta digitalean espezializatutako profilak kontratatzeke hautaketa prozesua.

Bankua bezeroekin, teknologiarekin eta inguruarekin konpromisoa duten **etorkizuneko bankako profesionalen** bila dabil, Erakundeak ekonomia, gizarte eta ingurugiro arloetan duen eragin positiboa handitzeko, baliabide gardenen bitartez.